

IZAN ALA EZ IZEN? EUSKAL HERRIAREN IRUDIKAPENA EUSKAL HEDABIDEETAN

Eneko Bidegain, Ainhoa Larrañaga eta Zuriñe Maguregi
Martin Ugalde Kultur Parkea, Berria, Jakin eta Elkar, 207 or.
Andoain, 2021

Izenik ez duenak ba al du izanik? Eta izen asko dituenak izan bakarria eduki al dezake? Eneko Bidegain, Ainhoa Larrañaga eta Zuriñe Maguregik euskal lurraldeen irudikapena eta izendapenak —«Euskal Herria», «Euskadi», «EAE», etab.— aztertu dituzte euskarazko hedabide nagusietan, 2018tik 2020ra argitaratutako 4.000 albiste baino gehiago aztertuz. Martin Ugalde Beka jaso duen ikerlan hau liburu-formatuan eskaintzen digute ikertzaileok, eta zenbait gako ematen dituzte euskal hedabideen eta nazio-kontzientziaren arteko harremanaren inguruan. Gaur egungo egoeraren diagnosia ez ezik, konponbide posibleak ere proposatzen dituzte, Euskal Herriaren zatiketa politiko-administratiboa gainditu eta haren lurraldetasuna errespetatze aldera.



1. irudia. *Izan ala ez izen? Euskal Herriaren irudikapena euskal hedabideetan* argitalpenaren azala.

Liburuaren testuingurua

1995ean Michael Billig gizarte-psikologo ingelesak *Banal Nationalism* liburua kaleratu zuenetik, nazionalismo-ikerketen baitan koka ditzakegun ikerlanak nabarmen aldatu dira. Ordura arte, eztabaidak nazioen eta nazionalismoen sorreraren eta izaeraren inguruan ardaztuta zeuden: nazionalismo etniko eta zibikoaren arteko dikotomia; paradigma modernistaren talka perennialismoarekin eta, ondoren, etnosinbolismoarekin, etab. Kritikak kritika, Billig-ek lortu zuen nazionalismoaren aztertzaileon arreta nazioen eguneroko birsorkuntzara zuzentzea. Hark garatutako nazionalismo hutsalaren tesiaren arabera, herritarron eguneroko bizitzan hainbat erritual eta errutinazko praktika daude, oharkabean gelditu ohi direnak eta nazio-identitate jakin bat modu inkontzientean transmititu ohi dutenak. Normalean «nazionalista»tzat jotzen ez ditugun arren, praktika horiek naziokidetzarentimendu bat naturalizatu eta etengabe gogorarazten digute. Azken urteotan nazioaren eguneroko erreprodukzioaren inguruan *bottom-up* —hots, behetik gorako— ikuspegiak garrantzi handiagoa hartu badute ere (adb. Fox eta Miller-Idriss, 2008; Skey, 2011; Skey eta Antonsich, 2017), Billig-ek *top-down* —hau da, goitik beherako— ikuspegia izan zuen bere liburua idatzi zuenean. Izan ere, nazionalismo hutsalaren adibideak ematean, hedabideen, instituzioen eta politikarien zenbait praktikatan jarri zuen arreta.

Euskal hedabideetan eta Euskal Herriaren irudikapenean zentratzen den heinean, Billig-en ildoan koka dezakegu Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko —HUHEZIKO— hiru irakasle on ikerlana. Haien profil profesional eta akademikoak, ezberdinak izanda, elkarren osagarri izan omen dira. Era berean, lurralde-ikuspegitik jatorri ezberdinekoak izatea ere lagungarria suertatuko zitzaien, ziurrenik.

Lehenik, Eneko Bidegain Aire (Baiona, 1975) Euskal Ikasketetan graduatua da, *Euskaldunon Egunkaria*-n eta *Berria*-n kazetari ibili zen 1999 eta 2009 artean, eta 2013an doktoratu egin zen, UPV/EHUren eta Michel de Montaigne (Bordeaux 3) Unibertsitatearen tutorekidetzapean *Eskualduna* astekariari buruzko tesia burutu eta gero. Gaur egun irakasle titularra da Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduan, Mondragon Unibertsitatean, eta azken urteetan Euskal Herriaren lurraldetasuna eta haren irudikapenak jorratu ditu, besteak beste.

Bigarrenik, Ainhoa Larrañaga Elorza (Bergara, 1973) Zuzenbidean lizentziatu zen UPV/EHU, eta kooperatibismoari buruzko doktore-tesia egin zuen Mondragon Unibertsitatean. Gaur egun, irakasle titularra da Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduan, eta ikerketak egin ditu euskarazko hedabideen edota nazio-identitatearen inguruan.

Hirugarrenik, Zuriñe Maguregi Sanchez (Santurtzi, 1983) Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatu zen UPV/EHU, eta arlo horretan Masterra egin zuen Bartzelonako Unibertsitatean (UB). Komunikazio-lanetan aritua, *Gaztezulo* aldizkariaren zuzendaria izan zen 2016 eta 2018 artean, eta azken urteetan eskolak eman ditu Mondragon Unibertsitatean, baita ikus-entzunezko proiektuak kudeatu ere.

Finantzaketari dagokionez, Martin Ugalde Kultur Parkeak, Berriak, Elkar Fundazioak eta Jakin Fundazioak ahalbidetu dute proiektu honen garapena, Andoingo Udalaren laguntzaz antolatutako Martin Ugalde ikerketa-bekaren bidez. Bi urtean behin zabaltzen duten deialdiak bi gairen gaineko ikerlanak finantzatzeko xedea du: kazetaria, idazlea eta politikari abertzalea izandako Martin Ugalderi buruzkoak, edota euskal kazetaritzari buruzkoak. Kasu honetan, bigarrena izan da jorratutako gaia.

Horiek horrela, autoreok euskal testuinguruan oso beharrezkoa zen proiektu bat eraman dute aurrera. Hurrengo atalean azalduko ditut liburuaren nondik norakoak.

Liburuaren edukia

Modu literarioan idatzita, «Izan ala ez izen?» izan da ikerketa honen galdera. Kontrazalean irakur dezakegunez, galdera zehatzagoak barnebiltzen ditu horrek: «Euskal hedabideek nola irudikatzen dute Euskal Herria? Lurralde nola izendatzen da? Izendapen horren azpian zein da eremua? Zein dira mugak?».

Atalez atal, lehenengo atalak, «Udako egun bero batean» izenburu duenak, sarreraren funtzioa betetzen du, eta azaltzen du euskal hedabideen azterketa hau egileen kezka batetik abiatzen dela: alegia, Euskal Herriaren lurraldetasunaren galerari buruzko kezkatik. Izan ere, Euskal Herriaren zatiketa politiko-administratiboa sendotu denez gero, badirudi euskal hedabideetan Nafarroa Garaia eta Ipar Euskal Herria baztertuta geratu ohi direla, Euskal Autonomia Erkidegoaren mesedetan.

Bigarrenik, «Lurraldetasuna eta nortasuna» atalak egileen erreferentzia teoriko eta bibliografikoak jorratzen ditu, eta ondoren haien ikerketaren diseinua aurkezten du. Lehendabizi, zenbait autoreren ekarpen teorikoak azaltzen ditu, hala nola Anne-Marie Thiesse, Víctor Francisco Sampedro edota arestian aipatutako Michael Billig-enak. Hitz gutxitan, prentsa irakurtzea nazio-identitatearekin lotura hertsia duen errituala da. Izan ere, «gu», «hemen» eta antzeko hitz txikiek —deixiek— nazioari egin ohi diote erreferentzia; beste batzuetan, elipsien bidez entzuten ditugu erreferentzia horiek: esaterako, «gubernua» esaten dugunean, zehaztu gabe nongoaz ari garen. Horrelako praktiken bitartez, eta milioika pertsonak elkarren berri izatea ahalbidetuz, egunkariak nazio-kontzientzia bat herritarren sen onaren (hots, «*zentzu komun*»aren) parte bilakatzen dute, nazioaren mugak eraikitzearekin batera. Kataluniako espazio komunikatiboen egoerari erreparatu ostean, Euskal Herrira egiten dute salto, 1990eko hamarkadatik hona euskal hedabideetan nagusitutako joeretan zentratzeko, betiere Josu Amezaga, Edorta Arana, Gorka Salces eta beste ikertzaile batzuen lanen arabera.

Horiek aintzat hartuta, hiru fasetan diseinatu dute ikerketa. Lehenengo fasean, euskarazko hedabide nagusien edukiak —*Berria*, *Argia*, Euskadi Irratia eta ETBren euskarazko edukiak— aztertu dituzte 2018 eta 2020 artean aukeratutako hilabete jakin batzuetan, guztira 4.000 albiste baino gehiago. Azterketa hori kuantitatiboa ez ezik, kualitatiboa ere izan da. Bigarren fasean, hautemandako joeren zergatiak ulertze aldera, kazetariak —zuzendaritzakoak, erredakziokoak eta Baionako

ordezkaritzakoak— elkarrizketatu dituzte, baita Gaindegiko¹ arduradun bat ere. Hirugarren fasean, konponbideak bilatzeko asmoz, bi eztabaida-talde antolatu dituzte, bata zenbait hedabidetako kazetariekin, eta bestea Ipar Euskal Herriko kazetariekin. Horrekin batera, Jabi Asurmendi Udalbiltzaren lehendakaria ere elkarrizketatu dute, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskal Hirigune Elkargoak ezezkoa eman edo gonbiteari entzungor egin ostean.

Hirugarrenenik, «Marrazten den herria», «Marrazkiaren koadroa» eta «Nongoak dira datuak?» deituriko atalek ikerketaren lehen fasearen emaitzak aurkezten dizkigute. Albisteen azterketa kuantitatiboarekin hasita, albistek zenbait kategoriatan sailkatu dituzte gertakariaren eremuaren arabera nahiz eragin-eremuaren arabera: Euskal Herria, Hego Euskal Herria, EAE, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria. Portzentajeei buruzko xehetasunetan sartu gabe, ETBk eta Euskadi Irratiak nagusiki jatorria edota eragin-eremua EAEn duten albistek ematen ditu; *Berria*-k eta *Argia*-k, aldiz, arreta handiagoa eskaintzen diete Euskal Herriko edo Hego Euskal Herriko albisteei. Ipar Euskal Herriari datxekiola, ETBn eta Euskadi Irratian behera egiten du kategoria horretako albisteen portzentajeak, *Argia*-rekin eta, batez ere, *Berria*-rekin konparatuta. Hori esanda, autoreek ohartarazten digute «kontua ez da [dela] neurtzea Ipar Euskal Herriko albistek zenbateko presentzia duten, eta %10era hurbiltzen badira egokitze jotzea [...] helburua da neurtzea Euskal Herriaren zatiketa eta osotasuna zenbat aldiz agertzen diren» (201. orrian).

Azterketa kualitatiboak egoeraren diagnostia osatzen laguntzen du. Honakoak dira identifikatutako joerak:

- Zenbaitetan Espainia naturalizatzeko joera dago, adibidez immigrazioaz hitz egitean, Espainia erreferentziatzen hartzen dituzten datuak ematean, Espainia konparaketarako erreferentzia denean («EAEko pentsioak, Estatuko altuenak»), edota «Estatua» aipatzean —*Espainiako* Estatuaz ari direla zehaztu gabe—.
- Gehienetan, baina, EAE da naturalizatutako markoa, batez ere ETB eta Euskadi Irratiaren kasuetan. Ildo horretan, zenbait mekanismo identifikatu dituzte: elipsien erabilera («ekonomia», «herritarrak»); «gurean» bezalako deixiak; «Euskadi» edo «euskal» EAEn baliokideak izatea, edota «Euskal Herria» aipatu eta gero soilik EAEko adibideak ematea.
- Beste hainbatetan, EAEn ez mugatzeko asmoz, Nafarroa Garaiko datuak EAEko datuekin batera ematen dituzte hedabideek, baina bi datuak bereiziz, datu bakarra edo datuak herrialdeka eman beharrean.
- Euskal Herri osoari buruzko albistek ematean, Ipar Euskal Herriari buruzko erreferentzia eta datu falta nabarmena da, eta, Ipar Euskal Herriaz hitz egiten dutenean, soilik Ipar Euskal Herriaren eragina duten albistek kontatzeko izan ohi da.

1. Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia- eta gizarte-garapenerako behategia, 2004an sortutako irabazi-asmorik gabeko elkartea da. Haren xede nagusia da arlo sozioekonomikotik Euskal Herriaren nazio-garapenari lagungarri zaizkion edukiak landu eta eskaintzea. Zailtasun ekonomikoak direla-eta, [Gaindegia behategiko jarduerak](#) etenda ditu orain.

- Albisteeek Euskal Herri osoari egiten diotenean erreferentzia, gai jakin batzuez hitz egiteko izaten da (hala nola Ipar Euskal Herriko ikasleek bizi dituzten trabez Hego Euskal Herrian ikasteko), edo Gaindegiak edo datu-kazetaritzak Euskal Herri osoari buruzko datuak ematea ahalbidetzen duelako batzuetan.

Azterketa kuantitatiboak zein kualitatiboak agerian uzten dute euskarazko hedabideek koherentzia falta handia dutela; izan ere, albistearen arabera, naturalizatutako eremua EAE, Hego Euskal Herria edo Euskal Herri osoa izan daiteke. Bidegainek, Larrañagak eta Maguregik koherentzia falta horren atzean dagoena arakatu dute eta ondorio honetara heldu dira: «Ez dago ia albisterik, hedabideak berariaz landuta EAERA mugatutakorik». Aitzitik, «EAERA mugatzen diren ia albiste guztien jatorria erakundeak, elkarteak, enpresak edo sindikatuak dira» (96. orrian), eragile horiek EAEn oinarritzen dituztelako euren txosten edota proposamenak.

Laugarrenik, «Marraskilarien ezinak» izeneko atalak ikerketaren bigarren fasearen emaitzak jorratzen ditu, hau da, kazetariei egindako elkarrizketak. Elkarrizketa horiei esker, zenbait faktore zerrendatu dituzte euskal espazio komunikatiboa arestian deskribatutako egoerara eramaten dutenak: hedabide bakoitzeko erredakzioaren ildoak, erredakzioaren antolaketa, egunerokotasunaren inertzia, zatiketa politiko-administratiboaren kontsolidazioa, agenda nazionalaren falta, lurralde-desoreka eta datuen arazoa. Adibidez, *Berria*-k ez du «Euskadi» terminoa erabiltzen EAE izendatzeko; EITBk, berriz, «Euskadi» eta «EAE» baliokidetzat jotzen ditu. Edonola ere, biek ala biek komunikazio-arazoak omen dituzte euren Ipar Euskal Herriko ordezkartzeekin eta, presa-faktorearen eta gainontzeko hedabideekiko lehiaren eraginez, datuak ahalik eta azkarren ematera jotzen dute, nahiz eta datu horiek EAERA mugatu. Lurralde-desorekari datxekiola, elkarrizketatuek diote Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko arrakala gero eta handiagoa dela; horren adierazle litzateke Iparraldeko kazetariak ezagutza-maila handiagoa izatea Hegoaldeaz alderantziz baino.

Bosgarrenik, «Nola zorroztu lapitzak?» atala, izenburuak iradokitzen duenez, konponbide posiblei buruzko hausnarketa bat da, eta ikerketaren hirugarren fasearen emaitzak mahaigaineratzen ditu. Atalak 50 orri baldin baditu, horietatik 35 datuen aferari buruzkoak dira. Antza denez, gizarte garaikideetan datuekin obsesionaturik gaude, datuek ziurgabetasuna bazterten dutelakoan. Alabaina, datuek sarritan boterea islatzen dute, informazio zehatza baino gehiago. Hedabideek eskuragarri dituzten datuak modu aktiboan erreproduzitu besterik ez badute egiten, baliteke benetan zaindu nahi dituzten gauzetatik urruntzea. Esate baterako, barne-produktu gordinaren igoerari buruzko datua erreproduzitzeak ezkuta dezake aberastasun hori gero eta modu desorekatuagoan banatuta egotea. Horri datu-burujabetzaren falta gehitu behar diogu, Ipar Euskal Herriak ez baitu izaten berezko daturik. Hori guztia kontuan hartuta, liburuak datuen gaineko ikuspegi kritikoa izatera gonbidatzen ditu kazetariak.

Horrekin batera, Bidegainek, Larrañagak eta Maguregik elkarlanaren alde egiten

dute, hedabideen artean, hedabideen eta bestelako eragileen artean, edota Ipar eta Hego Euskal Herriko kazetarien artean. Gainontzeko proposamenen artean, honakoak aurki ditzakegu: euskal albiste-agentzia, euskal kazetarietzako eskola eta gida-liburua, hiru administrazioetako erakundeen parte-hartzea eta hedabideetako lurraldetasunaren behatokia.

Azkenik, «Izena eta izana» eta «Ondorioak eta aurrera begirakoak» atalek liburuari amaiera ematen dioten azken hausnarketak dira. Batetik, egileek gomendioak ematen dizkiete kazetariari euskal lurraldeen izendapenaren inguruan, segun eta nolakoa den eman beharreko albisteak. Orokorrean, «Euskal Herria» edo «Hego Euskal Herria» hobesten dituzte, eta «EAE» soilik eremu horri eragiten dioten albiste instituzional edo administratiboetara mugatzearen alde agertzen dira. Eremu horri eragiten badiote bakarrik baina albiste instituzionala edo administratiboa izan gabe, honakoak erabiltzea aholkatzen dute: «Araba, Bizkai(a) eta Gipuzkoa» edo «Mendebaldeko Euskal Herria». «Euskadi»-ren erabilera, aldiz, «historikoki okerra da, eta nahasmena baizik ez du sortzen», azken hamarkadetan EAEren baliokide bilakatu den heinean (197. orrian). «Ipar Euskal Herria» «Iparraldea» baino zehatzagoa da, bigarrenak esanahi orokorragoa izan baitezake, baina albiste bat konkretuki Lapurdiko gertakari bati buruzkoa baldin bada, «Lapurdi»-n gertatu dela zehaztu beharra dago.

Bestetik, ondorioek ondo asko laburbiltzen dituzte Euskal Herriaren irudikapena oztopatzen duten arazo nagusiak: 1) eremu administratibo bakoitzeko agendaren sendotzea eta, horri lotuta, herri-proiektu (abertzale)aren ahultzea; 2) hedabideak albiste eta txostenen *hedatzaileak* izatea, albiste *sortzaileak* izan beharrean, eta 3) Ipar Euskal Herriari buruzko datu falta eta berehalakotasunaren faktorea. Arazo horiei irtenbidea emate aldera, berriro zerrendatzen dituzte ikerlanaren hirugarren fasetik ateratako ideiak: datu-burujabetza, elkarlana hedabideen eta bestelako eragileen artean, euskal agenda eta euskal albiste-agentzia, kazetarietzako formakuntza-eskola jarraikia, lurraldetasunari buruzko estilo-liburua eta zaintza-batzordea (hedabideetako lurraldetasunaren behatokia).

Balorazioa

Eneko Bidegain, Ainhoa Larrañaga eta Zuriñe Maguregiren ikerlana, esan gabe doa, ikuspegi abertzale edo euskaltzaletik idatzitako liburua da. Soilik horrela uler dezakegu Euskal Herriaren lurraldetasunaren galerak kezka eragitea haiengan eta honelako proiektua aurrera eramatea. Martin Ugalde bera abertzalea zela kontuan hartuta, ez da harrizkoa haren izena duen bekak ildo horretako ikerlanak finantzatzea. Jakina, irakurleok ere antzeko ikuspegia eta kezkak ditugun euskaldunak gara; beraz, nahiko publiko konketu batentzat idatzitako liburua da.

Hori esanda, Mondragon Unibertsitateko irakasleek ekarpen handia egin diote euskal naziogintzari. Nolabait esatearren, euskal —hots, euskarazko— espazio komunikatiboa osatzen duten hedabideei kritika eraikitzailea egiten diete, kazetariak jabe daitezzen Euskal Herriaren lurraldetasuna nola irudikatzen duten eta urratsak eman ditzaten inkoherentziak baztertu eta lurraldetasun osoa errespetatze aldera.

Metodologia kuantitatiboa kualitatiboarekin uztartzea oso aproposa izan da, azterketa kuantitatibo hutsa hankamotz geratuko zatekeelako. Hala ere, eurek nabarmentzen duten bezalaxe, ekarpen nagusia ez da izan naturalizatutako eremu bakoitzak zenbateko pisua duen aztertzea, baizik eta albisteen atzean dagoena arakatzea, kazetariak elkarrizketatzea, eztabaida-taldeak antolatzea, instituzioekin hitz egiten saiatzea, etab. Horri esker, posible izan da deskribatutako egoeraren zergatiak identifikatzea eta konponbide zehatzak proposatzea. Bereziki azpimarratzekoa eta eskertzekoa da datuen irakurketa kritikoan eta datu-burujabetzaren aferan sakondu izana. Herritarrok etengabeen datuak entzutera eta irakurtzera ohitu bagara ere, bat nator liburuaren ideia nagusietako batekin: daturik gabe ere, posible da kalitatezko informazioa jasotzea, kualitatiboagoa. Oro har, proposamenek ere zentzuzkoak dirudite. Datu-burujabetzari dagokionez, kontuan hartuta Gaindegiaren lanak zer-nolako garrantzia zuen, benetan etsigarria izan zen behategi hark baliabide ezagatik bere jarduerak eten behar izana.

Ikerketaren diseinuari dagokionez, gauza baten falta sumatu dut: hautatutako hedabideen laginaren justifikazioa. Euskarazko hedabideak aztertzea baldin bazen helburua, lagina erabat ulergarria da, baina zergatik mugatu euskarazko hedabideetara, aurrekarietan aipatutako ikerlanetako batzuek erdarazkoak ere aztertu bazituzten? Zergatik ez sartu Radio Euskadi, *Naiz*, *Sud Ouest*, edo Vocento taldeko prentsa lagin horretan? Baliteke hori egin izana euskarazko hedabideek gaiarekiko sentsibilitate-maila handiagoa izango dutelakoan, gaztelarazko (frantsesezko) hedabideak bereziki Hego (Ipar) Euskal Herrira zuzenduta daudelakoan edo, agian, bekaren deialdiak euskarazko kazetaritzara mugatzen duelako ikerketa, baina irakurleak ez du justifikazio metodologikorik jasotzen laginari buruz.

Nolanahi ere, lagina hedabide gutxi batzuetara mugatu izanak abantaila bat izan dezake: azterketaren —eta, beraz, gomendioen— zehaztapen- eta egokitasun-maila handiagoa izatea. Horrek inpaktua handitu dezake hedabide horietan, are gehiago aintzat hartzen badugu *Berria* egunkariak berak ikerketaren finantzaketan lagundu duela eta ikertzaileek EITB, *Berria* eta *Argia*-ko kazetariak elkarrizketatu dituztela eta, hortaz, elkarrizketatuok ikerketaren berri izan dutela.

Euskal lurraldeen izendapenen egokitasunari heltzea ere liburuaren ekarpen garrantzitsua da, eta hausnarketa horrek ez du balio soilik kazetariarentzat, baizik eta euskaldun ororentzat. Orokorrean, egindako aholkuak arrazoizkoak dira. «Euskal Autonomia Erkidegoa» formula apika luzeegia eta juridikoegia izanda benetan gizarteratzeko, Bidegainek, Larrañagak eta Maguregik aipatzen duten alternatiba pentsatzeko modukoa da, betiere instituzionalak ez diren albisteetarako: alegia, «Mendebaldeko Euskal Herria». Formula horren erabilera normalizatzeko asko lagunduko luke ikusarazten hiru lurraldeok osotasunaren zati bat baino ez dutela osatzen.

Alabaina, liburuak izen instituzionalen erabilera kuestionatzeko aukera galtzen du. Adibidez, «Eusko Legebiltzarra» edota «Eusko Jaurlaritza» izen instituzionalak izanda, euskalduntasunaren kontzeptua administrazio-eremu bakarrera mugatzen dute nolabait. Izen instituzionalak zalantzan jarri nahi izanez gero, zein litzateke

konponbidea? «EAEko Legebiltzarra», «Gasteizko Legebiltzarra»... «Legebiltzarra» eta «Jaurilaritza», besterik gabe, hedabide batzuk egiten hasi diren moduan? Era berean, euskarazko hedabideetan zentratzen denez, liburuak ez du gomendiorik ematen erdarazko izendapenei buruz.

Edozein kasutan ere, eta azterketa kuantitatiboko albisteen sailkapenean desadostasun metodologiko txiki batzuk gorabehera (eurek aitortzen dute albistek sailkatzea ez dela zientzia zehatza), Eneko Bidegainek, Ainhoa Larrañagak eta Zuriñe Maguregik ekarpen handia egin diote Euskal Herrigintzari, oso beharrezkoa —eta interesgarria— den ikerketa bat garatuz eta euskarazko hedabideetako lurraldetasunaren irudikapena hobetzeko proposamen zehatzak eginez. Orain hedabideen, instituzioen eta bestelako eragileen esku dago norabide horretan urrats sendoak ematea.

Erreferentziak

- Billig, Michael (1995): *Banal Nationalism*, SAGE, Londres/Thousand Oaks (Kalifornia)/New Delhi.
- Fox, Jon E. eta Miller-Idriss, Cynthia (2008): «Everyday nationhood», *Ethnicities*, 8(4), 536-576.
- Skey, Michael (2011): *National belonging and everyday life. The significance of nationhood in an uncertain world*, Palgrave Macmillan, Basingstoke, Hampshire (Erresuma Batua)/New York.
- Skey, Michael eta Antonsich, Marco (argtz.) (2017): *Everyday nationhood. Theorising culture, identity and belonging after Banal Nationalism*, Palgrave Macmillan, Londres.

Jon Fernández-Iriondo²
NOR Ikerketa Taldea, UPV/EHU

2. Argitalpen honen egilea UPV/EHUn ikertzaileak prestatzeko kontratazio-deialdiaren onuraduna da (PIF 2022). Gainera, lan honek Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza ere jaso du (IT-1438-22).